

HIDROKARBURUEN GAINEN ZERGAREN ITZULKETA BEREZIA NEKAZARI ETA ABELTZAINENTZAT

Zerga araudiak jasotzen duenez, nekazariak eta abeltzainek eskubidea dute data jakin batzuetan gasolioa erostean Hidrokarburoen gaineko Zergan ordaindutako edo jasandako kuoten itzulketa berezia eskatzeko.

Zer itzultzen zaie?

Zerga Bereziei buruzko martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak 50.1 artikuluan jasotako tasa hobarrituan zergapetutako gasolio erosketengatik Hidrokarburoen gaineko Zergan ordaindu dituzten kuotak itzultzen zaizkie, baldin eta gasolioa 2007ko urriaren 1etik 2008ko abenduaren 31era arte erosia badute.

Nortzuek dute itzultzeko eskubidea?

Aipatu epean nekazaritzarako gasolio hobarritua erabiltzeko eskubidea izan duten nekazari eta abeltzainek, pertsona fisikoak izan edo juridikoak izan, baldin eta hura nekazaritzan karburante gisa benetan erabili badute barazkigintza, abeltzaintza eta basogintza barne, eta gainera, jarduera horietan aritzeari begira, epe horretan zerga ondorioetarako Gipuzkoako zergapekoen erroldan inskribatuak egon badira.

Zein gasolio kontsumok ematen du itzultzeko eskubidea?

Kontsumo hauek:

- a) Bide eta terreno publikoetan zirkulatzeko baimenduta dauden edo ez dauden traktoreen eta makineriaren motorrak, hain zuzen nekazaritzan erabiltzen direnak barazkigintza, abeltzaintza eta basogintza barne.
- b) Helburu bera duten aparatu eta tramankuluen motorrak.

Zenbat itzultzen zaie?

Itzultzekoa kalkulatzeko, 1.000 litro bakoitzeko 78,71 euroekin (tasa) biderkatu behar da kopuru hau: 2007ko urriaren 1etik 2008ko abenduaren 31era bitartean nekazaritzan - barazkigintza, abeltzaintza eta basogintza barnebenetan erabilitako gasolio bolumena (mila litrotan adierazia) 0,998 koefizientearekin biderkatuz ateratzen den emaitza.

Adibidez: Kontsumitutako 1.800 litro gasolio x 0,998 = 1.796,4 litro x 78,71€/ 1.000 = 141,39 euro itzultzeko.

Zer egin behar da itzulketa lortzeko?

Hidrokarburoen gaineko Zergaren itzulketa lortzeko, “nekazariak eta abeltzainak gasolioa erostean jasandako Hidrokarburoen gaineko Zergaren itzulketa berezia eskatzeko orria” aurkeztu behar da (SGA ereduko inprimakia) 2009ko ekainaren 30era arte. Eskaera orrian hauek adierazi behar dira:

- 1 IFZ: 9 karaktere
- 2 Gasolio hobaritua erabili duten ibilgailuen matrikulak.
- 3 Gasolio hobaritua kontsumitu duen makineria edo tramankailuaren izena eta fabrikazio zenbakia.
- 4 Kontsumitutako litro bolumena eta zenbatekoa. Gasoliotxeke bidez erosten bada, aitortzaileak zehaztu beharko du zenbat litro erosi duen berak ordaindutako zenbatekoaren barruan, eta datu hori jaso beharko du eskaera orrian.
- 5 Hornitze eragiketa bakoitzaren edo faktura berari lotutako gasolio hobarituko hornidura multzoaren data eta faktura zenbakia.
- 6 Entitate finantzarioaren identifikazioa eta itzulketak transferitzeko erabiliko den bezeroaren kontuaren kodea.

Nola egiten da itzulketa?

Itzultzeko eskaeren arabera, Gipuzkoako Foru Ogasuneko Zeharkako Zergen Zerbitzuak kuota itzultzea erabakiko du eta banku transferentzia egingo du aitortzaileak adierazitako kontuan.

Bada beste betebeharrak bat itzulketaren onuradunentzat?

BAI. Itzultzeko eskaeretan jasotako hornidura bakoitzaren edo hornidura multzo bakoitzaren faktura eduki behar dute Hidrokarburoen gaineko Zergaren onuradunek, eta lau urtez gorde beharko dute eskaera horiek aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera.

Non egin eta aurkeztu daiteke eskaera?

Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Garapenerako Departamentuko eskualdeko nekazaritza bulegoetan egin eta aurkeztuko dira. Gipuzkoako Aldundiko Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko zerga bulegoetan ere aurkez daitezke, orriak bete ondoren.

Noiz jarriko da indarrean araudi hau?

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean araudia.

Ohiko galderak

Ondasun komunitateak eta sozietate zibilak

G. Ondasun komunitateak eta sozietate zibilak jaso al dezakete nekazari eta abeltzaineei zuzendutako Hidrokarburoen gaineko Zergaren itzulketa berezia?

E. BAI. Horiek ere jasota daude araudian. Itzulketa jasotzeko beharkizuna da aipatu xedapenak eskatutako baldintzak betetzea.

Eskaera

G. Eskaeran jaso behar da fakturaren zenbateko osoa ala zenbateko horretatik kendu behar da BEZa?

E. Fakturaren zenbateko osoa jaso behar da.

G. Gasolio hobarituko txeke bidez erosi denean eta txikizkako salmentako establezimenduaren titularrak fakturak egin dituenean, fakturaren zenbakia eta haren gainerako datuak jaso behar al dira itzultzeko eskaeran?

E. Gasolio hobarituko txeke bidez gasolio hobaritua erosi denean, establezimendu berean egindako hornidura kopurua adierazi behar da lerro bakarrean. Kasu honetan, faktura zenbakiak CH balioa eramango du, eta data zuri utziko da.

